



b

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

618. zkia.

XV. urtea

2007ko ekainaren 15a

Mendaroko Ospitalea txiki gelditu da

ikastaro trinkoak uztailean

izen ematea: ekainaren 22a baino lehen



ILS
HIZKUNTZ
SOLUZIOAK

alemanez,
frantsesez,
ingelesez,
eta italianoaz
(nagusiki gaitzak)

uztailaren
2tik 27ra
(goizez eta
arratsaldez)

40 ordu
taldeko

Informazioa:
tel. 943 744040
faxa 943 741654
e-mail: ils@ils.es
www.ils.es



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behe
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



ALAIN ULAZIA

Surik bai, Alaitz?

Duela berrehun urtera arte, Europan, sua pizteko modu bi zeuden; bata, egurraren igurzteaz; bestea, eta bera zen ohikoena, "ardagaiaz"; hartarako behar zirenak: sukarrri pieza bat, metal pieza bat (burdina eta su-frezkoa), eta ardagaia (liñua, onddoa, luma edota goroldioa). Sukarriaz metala igurtzi behar zen, harik eta txinparta bat, suerte pixka batez, ardagaian erori, eta hura isiotu arte, ez omen zen erraza, ahal zuenak behintzat, sua beti piztuta izaten zuen etxean.

Mende haren hasieran, su errazaren bila hainbat saio egin zituen garaiko industria txikiak. Pospoloo, Txinan 6. menderako asmatua baldin bazen ere, Europara 18.aren akaberan ailegatu zen. 1827an, baziren (arriku handiko) "Luzifer pospoloak"; 1855ean, Suedian, seguritate pospoloo sortu zen; hortik laster, pospolo merkea.

Bestetik, 15. menderako gerra-teknologia paretsukoa erabiltzen zuten europarrek eta txinatarrek; hala ere, jauzi bat eman zuen Europak bertako gobemuek permititutako arma komertzioagatik eta heriotza-merkatuen 'liberalizazioagatik'. Ingalaterran, ola-gizonek koroa konbentzitu zuten, utz ziezaien kanoiak atzerrira saltzen. Debaldeko ekonomikari ere biziki eragin zion armen industriak: mendez mende, ezpataz, arkabuzez, mosketez eta pistolaz hornitu genuen Espainiako armada.

Su-armetako sua sukaldekoa baino gehiagotan piztu eta itzali izan da beraz.

ZOZOAK BELEARI...



ALAITZ VIVES

Baina-patatak prestatzen ari naizen honetan sukaldeko gezurretazko sua etengabe piztu eta itzaltzeko gogoia etorri ez zait ba! Estadistika apurtzeko bada ere. Gutako zenbatek piztu eta itzali beharko genuke sukaldeko sua estadistikari buelta emateko!? Horrelakoetan gizakiarengan dudak fede apurra agortu egiten zait. Baina-pataten ura bezelaxe.

Gurea moduko gizarte batean arma industria beharrezko kaltea edo gutxiengo kaltea dela esango duenik ere izango da, seguru. Ikusi bestela zenbat eta zenbat aurrerapen tekniko gizarteratu diren arlo militarrean garatu osten!

Eta zer diozu beldurraz? Segurtasun mailak 10 puntu egin du gora altzairuzko sua poltsan daraman hogeitamar urteko emakume horrengan. A ze nolako negozioa beldurrarena.

Bare Produktu Gordinak bost puntu egin du gora. Dio egurkariko titularrak. Hileroko nomina puntu-puntuan iritsi zaigu hileren leian. Gurean amak ekoizten dituztenek 100 milioi euro inguru irabazi omen zituzten ez dakit noiz... Bankuko erreziboa ere puntu-puntuan iritsi zaigu hileren leian. Gastu militarrek mundu mailan %37 egin du gora azken hamar urteotan.

Badira egunotan armei brilloa ateratzen ibiliko direnak ere. Piztu da suaren espirala. Sukaldeko sua itzali egin dut. Ispilu aurrean eseri naiz. Negargura dut.

«Su-armetako sua sukaldekoa baino gehiagotan piztu eta itzali da»

ALAIN

«Sukaldeko sua etengabe piztu eta itzaltzeko gogoia etorri zait»

ALAITZ



SUA ETA ANDRIA MENPEAN EUKI EZKERO, ONAK



Esaera zaharra

Ikusi arte, Luis

Ez gera askotan egon, baiña deitzen nizun bakoitzian gustura jarduten naban zurekin berbetan. Etorri onekua ziiñan eta denboria errez juten jatan zure aldamenian. Azkenekoz, oker ez banao, Elgoibarko Izarraren 40. urteurreneko liburua prestatzen jardun genduanian egongo giñan. Zurekin egon nahi nabala esan orduko azaldu ziñan Ubitarteko lokalerara. Beti bezain fiñ eta zuzen.

Bi ordu pasa egingo genittuan berbetan. Elgoibarko Izarrako presidentia izan ziñaneko hamaika kontu etara genittuan mahai gaiñera, baiña bizitzaz ere luze jardun genduan. Akorduan daukat zelan esan zenidan 13 urterekin hasi ziñala lanian. Goizeko 06:00etarako juten ziñala taillarrera, arratsaldeko 19:00ak arte lanian jarduteko. Eta ez jata sekula ahiztuko gosian gaiñian esandakuak: *“Lanetik urten, etxera jun eta etxian jateko nahikorik ez. Ni oso jatuna nitzan, eta ohera sartu bihar izaten nitzan goserik ez pasatzeko.”*

Alkarri agur esan gabe jun zera, Luis. Jakin ere ez dot egin gaixorik zeundenik.

Gustura emango nizun bostekua, baiña hainbeste ordu eta lan eskaini dizkizun Parrokixan agur esanda konformau bihar izan naiz. Horregatik idatzi dizut gutuntxo hau; estimatzen zintudala esateko.

Bueno, Luis, lanian segittu bihar dot. Baiña ez ahiztu hurrengo batian ere deittuko dizudala kontu-kontari jarduteko. Ordura arte.

IMANOL LARRAÑAGA

2007ko danborrada

Trinitateetako gure danborrada bukatu ondoren, etorri da balorazioa egiteko unea. Horrela bada, esan behar dugu ekitaldi horri buruzko balorazioa oso positiboa dela, bai partehartzaileei, bai ikuskizunari eta bertaratutako ikusleei dagokienean. Balorazio hori egin ostean, eskerrik zintzoenak eman nahi dizkizuegu elgoibartar guztioi, nahiz gure herrira etorri zaretenoi, zuek baitzarete gure danborrada ikuskizun handi bat bihurtzen duzuenak.

Zorionak eman nahi dizkiegu partehartzaile guztiei, danborrada prestatzen aritu direnean, buru-belarri eta ilusio handiz jardun dutelako. Horri esker gure danborrada benetan handia izan da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu lagundu diguten ostalariei eta elkarteei. Era berean, karroza muntatzeko, lokala ezer eskatu gabe utzi digunari; Suancesko (Cantabria) lagun bati, Elgoibarko lagun baten bitartez, karroza egiteko bere familiaren itasontzia, oroitzapenez beterikoa, utzi zigulako; soldatzaileei, mekanikariei, argiketariei, pintoreei, errotulugileei, arotzei, eta ziuurren ahaztuko genuen beste norbaiti ere eskerrak eman nahi dizkiegu; horiek baitira gure danborrada prestatzeko ezinbesteko oinarriak. Eskerrak gure Udalari, eta bereziki, Kultura Sailari, Udaltzaingoari, Lantaldeari eta Udalaren Musika Bandari.

Aurten, aipamen berezia egin nahi diegu Soralezeko Ezoziko Ama abesbatzari eta Gasteizko Canta Cantorum abesbatzari, ekitaldi bikaina eskaini zi-

guten-eta. Halaber, ez dugu Haritz Euskal Dantzari Taldea ahaztu nahi. Eskerrak eman nahi dizkiegu euren lankidetzagatik; eskerrak, batez ere, hain ikuskizun bikaina eskaini zuen dantzariari.

Bidenabar, gure eskerronik eta estimurik beroena Soralezeko, Azkoitiko eta Azpetiko danborradetako batzordekideei; arrokekin, danborrekin, partiturekin eta beste zenbait gauzarekin lagundu digutelako. Adierazi nahi dizuegu, zuen esanetara gaukazuela behar duzuen guztirako.

Agur bero bat bidali nahi diegu, bigarren urtez eta 20 urteko mutiko baten ilusioaz, Bergaratik, gure artillero pelotoia gidatzera etorri zaigun artillero horri. Datorren urtean ere elkar ikustea espero dugu.

Eta halaber, gure esker ona adierazi diegu hedabide guztiei eman diguten laguntza eta babesagatik.

Iritsi da agur esateko unea; eta danborradarekin gozatuko zenuten itxaropenarekin, eskerrak eman nahi dizkizuegu partaide eta ikusle izan zareten guztioi. Oso harro gaude eman diguzuen laguntzaz. Datorren urtera arte.

GORA ELGOIBARKO DANBORRADA



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarrak.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barrenpubli@elgoibarkoizarrak.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Enrique Bert **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertru **TIRADA** 4.630 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

- Errosario eta San Bartolome arteko karkaban katu bat erori zen hodi batetik eta inork ez zuen ezer egin: "Katu jaiio berri bat erori zen joan zen astean hodi batetik estolda batera. Ezin zuen atera eta bere ama ezin zen sartu. Lau egun eman zituen bertan negarrez, eta bizilagunok ezin genuen hura jasan. Udaltzaingora jo genuen eta ez zuten ezer egin. Oso modu txarrean etorri zen Eibarko udaltzain bat, baina ez zigun ezertan lagundu. Gu ibili ginen nola edo hala katua atera nahian, baina ezin izan genuen. Animaliak dira, baina pertsonak bezala sufritzen dute. Katua bertan hil zen, eta ez dago eskubiderik. Udaletxeari eskatu diogu karkabako zuloak tapatzeko, baina dirurik ez dagoela esan digute. Zulo horiek estali egin behar dira, arratoi eta kukaraxa mordoa ateratzen dira bertatik. San Bartolome eta Errosario kaleko merkatari eta tabernariak nazka-nazka eginda gaude, eta lehenengo solairuan bizi diren batzuen etxera ere sartzen dira arratoiak. Alkate berriak gai hau kontuan hartzea espero dut, oso garrantzitsua da-eta."

- Herri guztia pintadaz josita dago: "Joan zen barixakuan atxilotu zuten Arnaldo Otegi eta zapatuan horma guztiak pintadaz josita zeuden. Ez zait batere ondo iruditzen herriko hormak erabiltzea aldarrikapenak egiteko, gero denon artean ordaindu behar izaten da garbiketa. Gainera, Herriko Antzokiko pareta margotu berri zegoen eta ez litzateke horrelakorik egin behar".



- Basarteko argi farolak piztuta egoten dira eguna zabaldu eta hiru edo lau ordu pasatu arte: "Energia aurrezteko proposamenak jasotzen ditugu herritarrok, baina Udalak ere hobeto zaindu beharko litzuke alferrikako gastuak. Basarte auzoan eguna zabaldu eta hiru edo lau ordu pasatu arte, ez dituzte farolak itzaltzen. Gauza hauekin kontuz ibili behar da".



TXALOAK



- Trinitateetako Danborradaren Batzordea txalotu nahi dut, lan bikaina egin dutelako: "Bigarren urtez jarraian, bikaina izan da Trinitateetako Nagusien tanboddarrada, iazkoa hobetu duzuela ere, esango nuke. Txalo bero bat eman nahi dite antolatzaileei, parte hartzaileei eta tanborrada ikustera atera ziren herritar guztiei ere bai. Dena oso ondo atera zen, eta aurrerantzean bide beretik jarraituko duzuela espero dut".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





URRUZUNOREN *Luma*

Xake partida

Umetan xake jokoan aritu zen. Ez zen aparteko jokalaria izan baina garaipentxo batzuk lortu zituen lehiaketa ezberdinetan. Gero, handitzearekin batera, erabat utzi zion joko liluragari horretan aritzeari. Bada, ezer ere egiteko ez zeukan igande batean, zaletasuna berreskuratzea otu zitzaion. Horretarako, ordenagailuari desafio egitea pentsatu zuen. Zientzia fikziozko filmeetan bezala, gizakia eta makina aurrez-aurre izango ziren. Ordenagailuko xake jokoak maila ezberdinak zeuzkanez, berak maila ertainean lehiatzea erabaki zuen. Bazekien ez zuela ezer ere jokoan (bere ohoretxo salbu) eta ez zela gizateriaren ordezkari sentitzen makinaren aurka. Baina, jakina, irabazi egin nahi zuen. Jokaldiak pentsatzera ohitua ez zegoen arren, ongi samar gogoratzen zuen nola jokatu behar zuen. Partida orekatua hasi zen baina apurka-apurka makina piezak hobeto kokatzen hasi zen eta bukaera aldera bera nagusitu zen: gizakiak amore eman behar izan zuen. Etorkizun hurbilean beste alor batzuetan ez ahal da berdin gertatuko makina eta gizakiaren arteko lehia!

Jon Eugi

BOTAINK!

Ekainaren 5eko gauerdian ETAk bertan behera laga zuen su-etena. Bi egunkaritarak bidalitako agirian zioenez, "ETAk Euskal Herriaren defentsan fronte guztietan aritzeko erabakia hartu duela adierazi nahi du". Hauek dira Botaink! atalean jasotako iritzi batzuk:

Lillo: Gizarteak bakea eta konponbide demokratikoa eskatu ditu, eta politikariak ez dira kapaz izan hori gaitzeko. ETAk berak ere ez du mailarik eman. Gure seme-alabei gizarte hobea lagako genielakoan nengoen, baina oker nenbilen.

Lur: Nik tristura sentitu dut gaur goizean, etsipena. Esperantzaren zirkulua berriz ere itxi egingo delako tristura. Berriz ere betikora bueltatuko garelako, seguruenek. Haserrea ere senti nezakeen, baina ez dakit haserretzeko indarrak ere geratzen zaidan.

Meri: Krudela, bidegabea, tristea, tamalgarria, penagarria eta lotsagarria horiek euskaldun izatearen atzean egotea!

Dantzari: Ados egon gaitzke ETArekin erabakiarekin edo ez, baina argi dagoena da PNV eta PSOEek ez dutela ezertxo ere egin hau konpontzeko. Hitz egiteko prest ez badaude, zertarako prest daude?

www.elgoibarren.net

www.elgoiBARREN.net

Elgoibarko berri izateko beste modu bat.



[AKORDATZEN NAIZ]



JOSE ZUBIZARRETA

1924an jaioa

«Eskolia»

Zortzi bat urtekin Sallobenten eskolia gendun, eta hara etxian kanturen bat ikasten ibilitxa, baiña jun giñan eskolara 11 bat urtekin, San Lorentzon.

Eskolara juan nitzan baiña eskola hartan tontuak ezin zaban sekula ezer ikasi. Zeiñek ikasi laike zeñek erakutsirik ez badauka... Zer egin bihar dogu, ba, 43 edo 60 egongo giñan eta, mutil eta neska, San Lorentzon, danak batera maistra batekin (Maria Cristina zakan izena). Eta emakumiekin, neskekin, egitten zaban lan asko eskulanetan.

Han ibiltzen zan ume asko. Pentzaizu, han 13-14 urte zittuenak, nik 8-9 urte eukixagatik berak ezin zittuan lan danak egin. Maistriak lezixua hartzera bialtzen zigun, gehixegi zalako, ume gehixegi maistra horrentzako, ume gehixegi daneri erakusteko. Hala, etorri eta galdetzen zigun "hau bada-kizu?", ta "bai", eta "beste hau?", "baitta!". "Hau badakit eta beste hau ere bai", eta hola denporia pasatzen egon giñan, eta neria disimulau zaban.

Nik lekzio danak nakixazen etxian ikasitta, amak emandako liburu batetik nakan, errezak ziran. Haura pasau, eta poliki-poliki jun giñan eta gero, dotri-



ña zan hangua. Gero, gaiñera, lezxiuak, geometria, gramatikia zala, lekzio harek ikasi nittuan, baiña zertarako ikasi nittuan nik, ez banaban ententitzen zer esaten zaben, dana erderaz zan da?

Guk euskeraz egitten gendun, maistriak euskeraz gitxi egitten zaban, baiña guk euskerazko dotriña ikasi gendun. Orduan, dotriña ikasi ezker, eginda zauan. Dotriña zan mundua. Nik dotriñako pregunta guztixak nakixazen.

Horrek danak pasauta, jakin nahi badozu, egixa esanda, askok esaten debe tontua eta ezjakiña gauza berdiña dirala, eta gauza diferentia dira. Ezjakiñak ez daki asko, ibili ez dalako edo erakutsi ez diuelako.

Hamabi urte kumpliu baiño lehenago, gerria etorri zan.

[GURE BERBAK]

Fonologia (13): F/P altemantzixia

Pasa dan astian altemantzixak zer ziran esplikau gendun; bai eta adibide pare bat jarriri ere (D/L eta D/R altemantzixak eta hauen adibidiak eman genduzen). Gaurkuan beste altemantzixa edo txandakatze bat ekarriko dogu: F-ren eta P-ren artekoa. Beste ezaugarri asko bezela, indargalduta dago hau ere gaztien artian, eta F besterik ez da erabiltzen kasu hauetan. Baiña edadeko jendiak (60 urtetik gorakuak) oraindik ere badarabil P soiñua F-rekin txandakatuz. Hona adibide batzuk, solte eta esaldixetan txertatuta:

<i>konpesau</i>	<i>diperentia</i>	<i>aparixa</i>
<i>perixia</i>	<i>plakua</i>	<i>pamilixia</i>
<i>golperixia</i>	<i>konpianzia</i>	<i>depentsia</i>

Klaro, hori diperente da. Oingo gaztien bizimodua eta lehenguena diperentia da. Eske, badakik hamen ze pamilixa zagan!

Haren aitta San Lorentzoko semia zuan: plako altu bat.

Gero, berriz, inpartua eman tzion, eta orduantxe juan tzan.

Baitta hamen ere, zuen etxeko patxadan lora edarrak ikusten dira, e!

Aiba Dios! Hau dok konpianzia!

Kurutzetan egote(n) zuan erromerixia, pijo.

Eta telebisiua, berriz, eguardixan eukitze(n) juat pixkat; gabian, apalostian.

Geuk egitte(n) genduan inpanterixan; ni inpanterixakua nitzuan.

Jesus Mari Makazaga

JAVIER CASADO
TAXISTA

Elbarrientzako egokitua.
7 lagunentzako eserlekua.



Tel.: 678 92 96 90

Unastegi
ETXE AGENTZIA / INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokalak, lursailak...

Bernardo Ezenarro, 2 - E-posta: inmobiliariaunastegi@telefonica.net
Tel.: 943 74 34 92 - Mugikorra: 625 70 80 42

15 URTE EGINGO DITU OSPITALEAK

MENDAROKO OSPITALEA TXIKI GERATU DA

Duela 15 urte sortu zen Mendaroko Ospitalea. Debarreneko eskualdeko herritarren beharrak asetzeko helburuarekin sortu zen, eta hasiera batean bere funtzioa ondo bete bazuen ere, txiki gelditu da. Gizartea gero eta zaharragoa da, gero eta gehiago bizi gara eta gaixoak ere, gero eta gehiago dira. Gaurkoan, gai honi heldu diogu eta horretarako bi lagunekin egin dugu berba. Batetik, Jesus Astigarraga eibartarrarekin egon gara. Debarreneko Nagusien Kontseiluko presidentea da bera, eta eskualdeko adinduen egoerari buruz berba egin digu. Bestalde, Gorka Sarasola Mendaroko Ospitaleko gerentarekin egon gara, eta honek, ospitalea handitzeko dagoen proiektua azaldu digu.

Osakidetzaren sareko ospitale-rik gazteena da Mendarokoa, 1992. urtean ireki baitzuten ateak. Aurtengo urrian 15 urte egingo ditu. Mendaroko Ospitaleak Debarrena eskualdeko biztanle guztiei ematen die zerbitzua: Eibar, Elgoibar, Soraluze, Deba, Mutriku, Mendaro, Ermua eta Mallabia, baina hurbiltasunagatik Ondarroa eta Azkoitiko biztanleak ere, bertara etortzen dira. Guztira, 80.000 biztanle-entzako ospitalea da.

Azken urteotan txiki geratu da, eta ondorioak adineko jendeak jasaten ditu, batez ere. Debarreneko Nagusien Kontseiluak ikerketa bat egin du, eta bertako presidentea den Jesus Astigarragak kontatu dizkigu zein diren adineko jendeak dituen arazo eta kezka nagusienak: "Mendaroko ospitalea saturatuta dago alor guztietan. Itxaron zerrendak oso luzeak dira, ohe falta handia dago eta askotan, gaixoak beste eskualde batzuetako ospitaletara bidaltzen dituzte, eta horrek, adineko senideei batez ere, sekulako endreduak sortzen dizkio, gehienek ez baitaukate autorik. Hau gutxi balitz, gripe bolada handiak daudenean, larritasun handiegi ez daukaten ebakuntzak bertan behera lagatzen dira". Jesus Astigarragaren esanetan, ospitalea lehenbailehen handitu behar da: "2010. urterako ez bada handitzen, zerbitzu guztiak kolapsatu egingo dira eta arazoa askoz larriagoa izango da".



**80.000
biztanleri
eskaintzen die
zerbitzua
Mendaroko
ospitaleak**

DATU INTERESGARRIAK

- Ohe kopurua: **116**
- Ospitaleko langileak: **382**
- Espezialitateak: **26**
- Ebakuntza-gela kopurua: **4**
- Erditzeko gelak: **2**
- Kontsulta bulegoak: **42**
- Ospitalearen funtzionamendu gastua: **28.190.000 (2006an)**



GORKA SARASOLA

Ospitaleko gerentea

«Ohe falta da gure arazorik larriena»

Gorka Sarasola ospitaleko gerentearekin egon gara eta berak azaldu dizkigu ospitalearen egungo egoera eta etorkizunerako dituzten asmoak.

Zein da ospitalearen egungo egoera?

Duela bi urte baino hobeto gaude, aspektu guztietan. Batetik, itxaron zerrendak asko gutxitu dira, bai kontsultetan eta baita ebakuntzetarako; epe normaletan gaude. Kontsulten kasuan, dermatologia eta endokrinologia dira itxaron zerrenda luzeena daukatena, ez daukagulako espezialistarik. Baina arazo hau orokorra da, merkatuan ez dago espezialista nahikorik. Bestalde, eguneko ebakuntzak gehitu ditugu. Medikuntza teknologiak asko hobetu dira eta honi esker, gaixoak egun berean etxera bidali daitezke. Azken bost urteotan asko gehitu dira eguneko ebakuntzak.

Zein da zuen arazorik larriena?

Ohe falta, dudarik gabe. 14 ohe gehiago ditugu, eta igartzen da, baina ez da nahikoa. Orain 116 ohe ditugu eta nik uste dut, epe laburrera, berriz ere, txiki geldituko dela. Duela urte batzuk, gripe bolada baten ondorioz 200 gaixo bidali behar izan genituen beste ospitale batzuetara, eta aurten bakarria bidali dugu. Gizartea gero eta zaharragoa da, zorionez gehiago bizi gara, baina gaixotasunak ere gehiago ditugu. Gaur egun, gaixo medikoak gehiago dira, ebakuntzak dituztenak baino. Gaixotasun hauek asko luza-tzen dira eta oheak denbora luzez ego-

ten dira beteta. Eguneko ebakuntzekin ohe falta hori gainditzen ahalegintzen gara. Bestalde, ebakuntza laparoskopikoak egiten ditugu, hau da, ireki beharrean hodi batzuk sartzen dira eta ebaki txiki batzuekin operatzen da. Gaixoaren berreskurapena askoz azkarragoa da eta lehenago bidali daiteke etxera.

15 urte egingo ditu ospitaleak. Nola-ko eboluzioa izan du?

Fisikoki ez da sekula handitu, baina bere kapazitatea mordoaz hazi da. Nik 7 urte daramatzat hemen, eta handitze prozesua sekulakoa izan da. Nola edo hala moldatu behar izan ditugu gure bulegoak eta biltegiak gela berriak egiteko, kontsulta askoz gehiago ditugu, larrialdiak ere bai... Langileak ere askoz gehiago ditugu eta alde horretatik, gustura gaude.

• Ospitalea handitzeko daukazuen asmoak?

Eguneko ebakuntzen gunea bikoiztu egingo dugu eta larrialdien gunea handitu egingo dugu. Bestalde, eraikuntza berri bat egingo dugu atzeko aparkalekua dagoen tokian. Hemen, batez ere, pediatria eta amatasun gunea egokitu dugu. Azkenik, etxeko ospitalizazioari ekiteko asmoa daukagu, hau da, gaixoak ospitalera etorri beharrean erizain eta sendagileak joango dira euren etxera.



Jesus Astigarraga

DEBABARRENEKO NAGUSIEN KONTSEILUA

Debabarreneko Nagusien Kontseilua otsaila inguruan sortu zen. Esperientziaren Eskolatik bultzatutako ideia bat izan da. Adineko jende askok jubilatuta ondoren ez du jakiten denbora nola pasatu. Hainbeste urtetan jasotako esperientzia eta jakinduria guztia ezerezean gelditzen da, eta hori ez gertatzeko, jende nagusia aktibo mantentzeko aukera eskaintzen du Nagusien Kontseiluak. Jesus Astigarragak esan digunez, zailena jendea motibatzea da. Momentuz 10 lagun inguru daude taldean, gehienak eibartarrak. Jesus Astigarraga da presidentea eta aste honetan bertan egin dute kontseiluaren aurkezpen ofiziala eskualdeko alkate guztien aurrean.

Gizartea gero eta zaharragoa da eta honelako kontseilu baten beharra ikusi zuten, adinekoen arazoak gainditzeko: "gaur egun, Debabarreneko biztanleen %21a 65 urtetik gorakoa da eta hementik 7-8 urtera, %30a izango dela aurreikusten da". Eibarren hasi dira lanean, baina euren asmoa eskualde guztira zabaltzea da.

Ospitaleratzeak:	Kontsultak	Erditzeak	Ebakuntzak
2001: 6027	2001: 124.930	2001: 539	2001
2005: 5.800	2005: 133.000	2005: 600	2005: 4.000
2006: 7.000	2006: 140.000	2006: 600	2006: 5.000

[PROTAGONISTA]



Arnaldo Otegi

Donostian atxilotu zuen barixakuan espainiar poliziak Arnaldo Otegi Batasunako bozeramailea Audientzia Nazionalaren aginduz, eta Martuteneko espetxean sartu dute 15 hileko zigorra betetzeko. Gorenak berretsi egin du duela lau urte Argalaren omenaldian egin zituen adierazpenengatik Auzitegi Nazionalak ezarri zion kartzela zigorra. Bi urtekoa baino txikiagoa den arren, zigorra betearazteko agindua eman du Auzitegi Nazionalak. Atxiloketa salatze biltura egin zen barixakuan eta zapatuan manifestazio jendetsua izan zen; besteak beste Elgoibarren izan ziren Batasunako Mahai Nazionalako kideak.

[NOTIZIA]

Zapatuan osatuko dute Udalbatza eta alkate berria aukeratuko da

Zapatuan, eguerdiko 12:00etan udalbatzarra egingo da eta bertan Udalbatza berria eratzeaz gain, alkate berria aukeratuko dute. Hain zuzen ere, 17 zinegotziek kargua hartu ostean, bozketa egingo dute horretarako.

Alderdien artean akordio zehatzik ez

Udalbatza berria osatu ostean, Gobernu taldea EAJ eta EA alderdien artean eratzea ikusten da aukera gehien dituen elkarlan moduan. Hala balitz, Alfredo Etxeberriak ordezkaturiko luke Marivi Agirregomezkorta alkate karguan. Bi alderdien artean egon da elkarrizketarik, baina erredakzioa ixteko orduan oraindik akordio zehatzik ez zutela lotu jakinarazi ziguten. Beharbada Euskal Herri mailan alderdiek



lor ditzaketen akordioen arabera izan daitezke Udalekoak ere.

Gainera, ez da baztertu alderdien artean bestelako akordiorik egotea edo alderdi bakoitzak bere zerrendaburuari botua ematea ere.

[ZENBAKIA]

74

Unibertsitateko hautapropa egin dute Elgoibarko BH Institututik joandako 74 ikaslek Eibarren: Batxilergo zientifikokoak 32; humanistikokoak 27; eta Teknologikokoak 15. Elgoibartik joandako ikasle guztiek euskaraz egin dute selektibitate azterketa hori. Lehen deialdi honetako emaitzak asteon jakinarazi dizkiete.

asteko [ARGAZKIA]



Argazki bitxia aste honetakoa eta are bitxiagoa bertan agertzen den pertsonaia: Albaceteko Manuel. San Frantzisko iturriaren aldamenean bazkaltzen ari zela aurkitu genuen astelehen eguerdian. Zarauttik irten goizean eta bizikleta lagun gurera iritsi zen. Euskal Herria du gustuko eta bertan bizi da kalean, batetik bestera, bizikletaz ez bada oinez. Edari latekin hautsontziak egiten ditu eta jendearen eskura jarri borondatearen truke. Elgoibarre maiz etortzen omen da, beraz, ez harritu gurean zein inguruko herriren batean ikusiz gero.

Elgoibarko Izarrak kudeatuko ditu irailean irekiko diren aisialdi ekipamenduak



Udaltetik jakinarazi digutenez, Elgoibarko Izarrak kudeatuko ditu Udalak prestatu dituen ludoteka, gaztelekua eta Gazte Informazio Bulegoa. Udalak lehiaketa publikora atera zuen ekipamenduen gestioa eta, jakin dugunez, Elgoibarko Izarrak bakarrik aurkeztu du proiektua. Elkarrekin aurkeztutako

proiektua Udalaren gustukoa izan denez, bera izango da proiektua gauzatzeko arduraduna izango duena. Udalaren aurreikuspenak betetzen badira, irailean zabalduko dira ludotekako eta gaztelekuko ateak. Erretratuan Udaleko eta Elgoibarko Izarrako ordezkariak ikus ditzakegu ludotekako atarian.

Urruzuno eta San Migel auzoetan jaiak ospatuko dituzte

Uda giroarekin batera auzoetan jaiak hartu dute lekua eta aste bukaera honetan Urruzunon eta San Migelen festa giroa izango da.

Paduako San Antonioren eguna ekainaren 13an bada ere, ospakizunak zapatuan izango dira Urruzunon. 17:30ean meza izango da eta ondoren luntxa eta umeentzako jolasak. Auzotarrak afaritarako elkartuko dira gero lokal sozialean eta jaiak Ekaitz eta Arantza trikitilarien doinuek giroa hartuko dute Urruzunokoak dantzan jarri.

Bestalde, Aistia bailaran San Migel-darren Eguna ospatuko dute domekan, ekainaren 17an. Auzoko hildakoen alde meza izango da 12:00etan eta ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte. Mokaduaren ostean, auzoko pilotarien arteko norgehiagokaz gozatuko dute: Joshua Lizundia (Ziarda Txiki) eta Julen Ibarluzea

(Benta) pilotariak Beñat Arrizabalaga (Orube) eta Egoitz Arrizabalaga (Izarpe) bikotearen aurka jokatu dute.

Pilotariak indarrak beritzeko eta auzotarrak asetzeko bertako sukaldariak prestatutako bazkaria jango dute gero; eta bazkalostea girotzeko dantzarako nahikoa aukera izango da Gardokiren musikarekin.



[MOTZ-MOTZIAN]

EGA azterketarako prestatzeko eskolak udan euskaltegietan

AEK euskaltegiak eta Udal euskaltegiak iraileko EGA azterketarako prestatzeko eskolak emango dituzte uztailan eta irailean. Interesatuak ekainaren azken astera arte izango dute izena emateko aukera. Informazio gehiago eskuratzeko 943 74 13 32 (AEK) edo 943 74 27 31 (Udal Euskaltegia) telefonoetara dei daiteke.

Haurrentzako herri kirolak kiroldegian

Euskal Jaien mendeurreneko ospakizunen barruan, ekainaren 16an, 5 eta 11 urte bitarteko haurrentzako herri kirolak izango dira. Umeek kiroldegian 10:00etatik 14:00etara izango dute hitzordua. 300 ikaslek hartuko dute parte taldeka eta begiraleen laguntzarekin. Besteak beste harri jasozen, trontzan, aizkoran, txingak eramaten... jardungo dute, guztira 12 kirolatan. Umeentzako propio egokitutako materialak erabiliko dituzte. Parte hartzen duten ikasleek kamiseta bana jasoko dute.

Berriatuko idi proben zozketa

Trinitate jaietan saldu zituzten Berriatuko idi probetako zozketarako txartelak. Ekainaren 10ean atera dute zenbaki irabazlea eta saria 5.341 zenbakidun txartelari egokitu zaio; erretserbakoa, berriz, 6.223 zenbakia da.

Txakurren heziketa ikastaroak uztailan Elgoibarren

Edozein arraza eta adinetako txakurrak hezteko oinarrizko ikastaroa izango da uztailan barrena Elgoibarren. Martitzenetan eta eguenetan izango dira eskolak 19:30etik 20:30era bitartean. Ikastaroaren prezioa 100 eurokoa da. Irakasleak txakurren heziketan 20 urtetik gorako eskarmentua du. Ikastaroan parte hartu nahi dutenek 650 231 666 telefonora deitu beharko dute.

Inkesta

Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzerturako sarrerak berehala agortu ziren.
Musika klasikoa entzutea gustatzen al zaizu?

MAITE PRIETO
Etxekoandrea
32 urte



“Bai, asko gustatzen zait musika, bai klasikoa eta bai beste musika mota batzuek ere. Horrelako kontzertu batera ez naiz sekula joan baina ez dut bazterten noizbait joatea”.

ASUN ZAFRA
Sukaldaria
48 urte



“Bai. Musika oinarrizkoa da bizitzan, garrantzi handia dauka niretzat. Klasikoak erlaxatu egiten nau eta batik bat musika lasaia dut gustuko, gehien Silvio Rodriguez”.

GREGORIO ARREITUNANDIA
Erretiratua 61 urte



“Gustatzen zait bai, eta gertu tokatuz gero joango nintzateke horrelako kontzertu bat entzutera. Gainontzean, bakailoa ez, baina ia denetarik entzuten dut”.

ICIAR JUARISTI
Etxekoandrea
54 urte



“Gustuko dut, batez ere etxean entzuteko. Cobosen bildumak ere oso entzun errazak dira, baina musika klasikoan adituak diren batzuek kritiko dira bere lanarekin”.

[BAI ala EZ?]

Su-etenik gabe bake prozesuak aurrera egingo al du?

BAI %0

“Ez. Asko zailtzen du honek egoera, baina bake prozesua bera nahiko estankatua zegoen lehen ere. ETArri “atentaturik ez!” eskatuko nioke eta Espaniako gonemuari fitxak mugitzen hasteko.”

EZ %100

“Ez. Su-eten garaian ez badu aurrera egin, orain gutxiago egingo du. Gatazkak indarra hartuko duela iruditzen zait. Egoera negargarria da, eta etorkizuna beltz ikusten dut.”

Datorren asterako... **Urtebete pasa da puntu bidezko gida baimena martxan jarri zenetik. Puntu bidezko gida baimenarekin egoerak hobera egin duela uste al duzu?**

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

Softlan-EN ESKUTIK

TELELANA, ADOS?

Goizean iratzargailuak jotzen du, lanegun berri bat hastera doa, baina... lasai ez duzu presaka ibili beharrik, ez duzu kotxearen beharrik, etxean egiten duzu lan. Ordenagailua piztu eta e-posta datorren bitartean dutxara zoaz.

Agian langile askok nahiko lukete eguna horrela hastea.

Teknologia berriek gero eta gehiago ahalbidetzen dute etxetik lan egitea. Azken finean gero eta jende gehiagok ordenagailu baten aurrean egiten baditu ordu gehienak, logikoa dirudi zenbait lan bulegotik etxera eramatea.

Abantailak asko lirateke enpresarentzat: kostuak murrizten dituzte, soldata produktibitatearen arabera moldatu dezakete, expansio komertziala erraztu egiten zaie...

Baita langileentzako ere: beraien eritmoren arabera antolatu daitezke, bizi kalitate hobea lortu dezakete, lantegirako joan-etorriak desagertzen dira, arazo fisikoak edo ezintasunak dituztenentzat abantaila bat da...

Baina kalteak ere asko izan daitezke, batez ere langilearentzat, etxean ez da lanerako giro aproposa egoten, autodiziplina handia behar da zeren bestela deskontrola handia izan daiteke. Bakarrik egotean lan talde batek dakartzan abantaila profesional eta psikologikoak galtzen dira, lanak beste



lankideekin kontrastatzeko joera galdu daiteke, langilea isolatuta sentitu daiteke.

AEBetan duela urte batzuk zera iragaritzen zen: 2000. urtean hango biztanleen erdiak etxetik egingo zuela lan. Bada, ez. Enpresentzat ere ez omen da praktikoa langileak euren kontrolpetik urrun ikustea eta eurentzat ere, egun osoa bata edo pijama jantzita

etxe zuloan sartuta igarotzeak ez du abantaila handirik. Iaz, 1994an baino 400.000 telelangile gutxiago zeuden AEBetan.

Horrek funtzionatzen ez duenez aldearantziko joera berri bat dago: etxea, lanera eramatea, hau da, langileak lanean etxean bezala senti daitezen lortzea. Beraz, aldirantzikoa da joera.

 Softlan analisis & programazioa	Antonio Arrilaga, 1 Tel.: 943 74 81 05 info@softlan.biz www.softlan.biz
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------

 MICRO SYSTEM	INFORMATIKA DENDA Lerun Industrialdea, 6 ZERBITZU TEKNIKOA Jausoro Plaza, 3 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 02 40 E-posta: info@elgonet.es	

 ZAZPI INFORMATIKA	zazpi@telefonica.net Pedro Muguruza, 8 behea Tel./Faxa: 943 74 37 87
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------

 on informatika	Upaiz Zaharra 6 943 741 846 www.oninformatika.com on@oninformatika.com
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------

► CARLOS ANDRES HURTADO BOLIVIA [HEGO AMERIKA]

«Jateko ohituretan eta ordutegian sumatu ditut ezberdintasun nabarmenenak»

FAMILIA INGALATERRAN DUELA ETA IKASKETAK AMAITUTA HARA ABIATU ZEN ORAIN DELA URTEBETE INGURU. MUGA PASATZEN EZ ZIOTEN LAGA, ORDEA, ETA MADRILERA BUELTATUTA HAN ERABAKI BEHAR IZAN ZUEN ZEIN BIDE HARTU. LOGROÑORA JOAN ZEN LEHENENGO ETA BADA IA URTEBETE GURE ARTEAN, ELGOIBARREN BIZI DELA. IKASTEN DIHARDU ORAIN ETA LANA AURKITZEA DU HELBURU.



► Noiz eta nolatan etorri zinen Elgoibarrera?

Iaz maiatzaren 14an iritsi nintzen baina Elgoibarren bertan ekainetik nago, urtebete daramat hemen gutxi gorabehera. Aurrez Logroñon bizi izan nintzen eta han mahats-bilketan jardun nuen lanean. Nire asmoa ez zen Elgoibarrera etortzea, kasualitatez amaitu dut hemen. Ingalaterran ditut senideak eta lehen ere saiatu nintzen hara joaten, berriz saiatu arren legeak zorrotzagoak izanik ez zidaten pasatzen utzi. Madrilgo aireportuan esan zidaten nahi nuena egiteko, eta senide batzuen bidez Logroñon zegoen herrikide baten berri izan nuenez, hara joan nintzen. Lagunak egin nituen han eta hemengo berri eman zidaten, baita zenbait kontaktu ere. Bakarrik nengoen eta probatze aldera lan bila Elgoibarrera etortzea erabaki nuen.

► Bila zenbiltzan hori aurkitu duzu?

Lana aurkitu nuen pintore moduan, baina istripu bat izan nuen eta oraindik errehabilitazio ariketak egin behar ditut onera etortzeko. Beraz, lana utzi behar izan nuen.

«Etxebizitza eraikin
handiek harritu ninduten
hona etorritakoan»

► Orain zertan diharduzu?

Langabezian nago eta berandu baino lehen lanen bat aurkitzea da nire nahia. Bien bitartean IMHn tornu prestatzaile ikastaro bat egiten ari naiz arratsaldetan. Praktikak egin ostean, beharbada aukera izan nezakeen lanerako baina paperik ezean zaila da.

► Hona etorri aurretik lanean ari zinen Bolivian?

Medikuntza ikasketak amaitu nituen han. Ingalaterrarako bidea hartu nuenean maletak galdu zizkidaten eta horrekin batera unibertsitateko dokumentazio guztia. Gainera, hemen ezingo nuke mediku moduan lan egin.



► **Zein bizimodu egiten duzu?**

Langabezian nago eta Karitasen laguntzari esker bizi naiz. Paperik ez neukanez eta errolatuta ez nengoenez Udalak ezin zidan dirulaguntzarik eman. Gerora lagun baten etxean errolatu nintzen. Santa Ana kaleko etxe batean gela bat alokatu eta etxebizitza partekatzen dut, baina istripua dela eta nire kabuz moldatu ezin nintzenez denboraldi batez neskalagunak lan egiten duen etxean bizi naiz.

► **Zein ezberdintasun aurkitu duzu zure herrialdearekiko?**

Jatekoa eta ordutegia dira ezberdinak. Tabernetan pintxoak jateko ohitura han ez dugu ezagutzen, eta hemen ere Boliviako jakiak gertatzen ditugu etxean: haragia labean eginda; *Majadittoa* (hemengo paellaren antzerakoa); Oilasko *lorkroa* (zopa modukoa). Hemengo ordutegira ohitzea ere asko kostatzen ari zait. Gavez loak hartu ezinda egoten naiz. Gainontzean lanari, kulturari eta gizarte-ari dagokionez ez dut ezberdintasun nabarmenik topatu.

► **Zerk harritu zintuen gehien?**

Etxebizitza eraikin handiek. Hemen *chalet* deitzen diezuen moduko etxeetan bizi gara Bolivian eta horrelako etxe garaiak ikusteak harrigarria izan zen.

► **Nola hartu zaituzte Elgoibarren?**

Jendea oso lagunakoa da. Egin ditut lagunak bai bertakoak eta baita ni bezala kanpotik etorritakoak eta ongi moldatzen naiz gustura nago herritarrekin.

► **Inguruak ezagutzen dituzu?**

Herri erdian ibiltzen naiz batik bat eta IMH inguruak ere ezagutzen dut, bertan ikasten dudalako. Gainontzean ez naiz

herriatik inguruetara asko irten zalea. Noizean behin Logroñora joaten naiz lagunak bisitatzera baina besterik ez.

► **Zerbaiten falta sumatzen duzu?**

Alaba bat daukat 11 urtekoa. Frantzia bizi izan zen amarekin baina orain berriz Bolivian dago. Sarriago ikusi nahi nuke. Familiaren eta gertukoena falta sumatzen dut batez ere.

► **Boliviara itzultzeko asmorik baduzu?**

Oraingoz ez. Lana egin eta dirua aurrezteak da nire asmoa han, Bolivian etxe bat erosi ahal izateko eta bertara bueltatzeko. Baina hori epe luzerako asmoa da. Oporretan joatea ere pentsatu dut baina paperak lortu arte ez dut horretarako baimenik. Paperak eskuratzeko lan kontratua behar dut eta edozein lanetan jarduteko gertu nago, nire ametsa betetzeko.



BOLIVIA


- **Hiriburua:** La Paz (administratiboa); Sucre (judiziala)
- **Azalera:** 1.098.581 km²
- **Biztanleria:** 8.274.325 (2001)
- **Bizi itzaropena:** 65 urte
- **Erlijioa:** Katolikoak (% 85), Protestanteak (% 11), beste (% 4)
- **Gobernua:** Errepublika



Boliviako familiarekin agur afaria egin zuen eta oroitzapenerako argazkia atera.

GAZTIA NAIZ

txApeLa bURuAN...



Igor Barrutia

Igor Barrutia elgoibartarra Eslobakian dago. Europa erdialdeko estatua dugu Eslobakia, Polonia, Ukraina, Hungaria eta Txekiar Errepublikarekin egiten du muga. Lanera joan zen Igor Barrutia bertara iazko irailean. Estatuko iparraldean dagoen Zilina hirian bizi da, eta egunero-egunero, Martin izeneko hirira joaten da lanera. Bera bizi den hiritik 30 kilometrotara egiten du lan, baina esan digunez, iraila edo urria aldera, Martinera joango dira bizitzera. Eslobakiako hiriburua Bratislava da, eta honen atzetik, Zilina eta Martin Eslobakiako hiribururik garrantzitsuenetarikoa dira. Gaurkoan, bere esperientzia kontatu digu Igorrek.

Zer dela-eta joan zinen Eslobakiara?

Nire bizimoduak aldaketa bat behar zuen. Lanera etorri nintzen Eslobakiara eta egia esan behar badut, gauzak oso ondo atera zaizkit. Orain lana eta neskalaguna ditut. Irailean ez-konduko gara.

Nolakoa da Eslobakia?

Oso polita. Hemengo paisaiak izugarri gustatu zaizkit, eta bertako jendea ere oso jatorra da, oso ondo moldatzen naiz beraiekin, ez dut inolako arazorik izan hemengo bizimodura egokitzeko. Gutxien, gustatu zaidana euren gidatzeko modua izan da. Oso gaizki gidatzen dute, edozein lekutan aurreratzen dute...

Klima aldetik gogorra al da negua?

Negua oso gogorra izango zela uste nuen. Hona iritsi eta berehala sekulako elurtea bota zuen, baina ez da hain gogorra izan. 20-25 gradu zero azpitik egotea ohikoa da hemen, baina niri ez zait tokatu.

Zer moduz moldatzen zara hizkuntzarekin?

Egia esanda, hizkuntzetan ez naiz sekula oso abila izan eta zailtasun handiak ditut. Dena dela, poliki-poliki hasi naiz moldatzen. Eslobakiarrez hitz egiten da hemen, eta hizkuntza zaila da. Beraiek ere arazoak izaten dituzte eskolan hizkuntzarekin. Soinu asko ditu eta ahoskatzeko ez da erraza.

Zer moduz jaten da Eslobakian?

Ondo jaten da, baina faltan botatzen dut Andonik soziedadean prestatzen zuen arraina.

Noiz bueltatuko zara?

Abuztuan La Mangara joango gara oporretan eta iraila amaieran Elgoibarrera joango gara familia eta lagunak bisitatzera.

Irailean zabalduko diren

LUDOTEKAN, GAZTELEKUAN eta GAZTE INFORMAZIO BULEGOAN lan egiteko

AISIALDIKO HEZITZAILEAK BEHAR DIRA

Curriculum-ak entregatzeko azken eguna: ekainak 25 (astelehena)

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea • Ubitarte 4, behea • 20870 ELGOIBAR

Informazio gehiago: Tel.: 943 74 16 26 (Imanol) • E-posta: imanol@elgoibarkoizarra.com

BARREN

jakiteko...

"GOMENDATZEN DIZUT" LEHIAKETA BERRIRO ABIAN



Gazte Bulegoek "gomendatzen dizut" lehiaketa antolatu dute aurten ere. Bidaietatik bueltan informazio eta argazki interesgarri askorekin itzultzen gara normalean. Material hori guztiarentzako interesgarria izan daiteke, eta horixe da lehiaketa honen helburua, leku desberdinei buruzko informazioa zabaltzea. Bi kategoria bereizten dira lehiaketa honetan. 12-17 urte bitartekoentzat izango da bat, eta bestea, 18tik 34ra bitartekoentzat. Saria i-poda, argazki kamera edo gustuko oporalditxo bat. Gomendioak aurkezteko epea 2007ko irailaren 30ean bukatuko da.

KIROL ARGAZKILARITZARI BURUZKO II. LEHIAKETA



Kirol Patronatuak eta Gazteria Sailak Kirol Argazkien II. Lehiaketa antolatu dute, Ongarri Argazki Elkartearen laguntzarekin. Uztailaren 16ra arte aurkeztu daitezke lanak Olaizaga kiroldegian. Sari banaketa abuztuaren 23an izango da eta aurkezten diren argazkien erakusketa Kultur Etxeko sotoan jarriko da abuztuaren 23tik irailaren 2ra. Hiru sari banatuko dira: herriko saria, gazte saria (35 urtera arte) eta sari orokorra (35 urtetik gorakoentzat). Informazio gehiago 943744115 telefonoan.

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Udako Euskal Unibertsitateak ikastaro desberdinak eskainiko ditu uztailaren 2tik 25era bitartean. Eibar, Baiona, Iruñea eta Lizarran emango dira ikastaroak. Besteak beste, antropologia, kazetaritza, antzerkigintza eta informatika alorreko ikastaroak eskainiko dira. Ikastaroetan parte hartzeko in-

teresatuek diru-laguntzak jasotzeko aukera ere, izango dute. Ikastaroei edota dirulaguntzei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikastaroak.ueu.org webgunera bisitatu daiteke, edota 943821426 (Irti) telefonora deitu. Matrikula egiteko epea ekainaren 21ean amaituko da.

gazte
informazioa
Kultur etxean. Bigarren solairuan
Tel.: 943 74 14 61

Lan dosierrak, bekak, lehiaketak... guzti honen inguruko informazioa

Gazte informazioko panelean aurki dezakezu!

PEPI CALLEJA MARGOLARIA

«Koadroetako pertsonaien sentimenduak azaleratzea gustatzen zait»

Merkatu Plazako fruta dendan egiten du lan Pepi Callejak, eta gehienok hortik eza-gutuko duzue. Gaurkoan, ordea, beste arrazoi batengatik ekarri dugu gure artera. Margotzea du gustuko, eta oso ondo egiten du gainera. Txikitatik gustatu izan zaio marraztea eta bere denbora librearen zati bat pasio honi eskaintzen dio. Barruan da-rama pintura, bame-bamean sentitzen du arte hau. Koadro artean bizi da, bere per-sonaiekin berba egiten du eta berak nahi duen espresioa lortu arte, ez du obra amai-tutzat ematen. Pertsonaien sentimenduak kanporatzea gustatzen zaio. Fruta aleen atzetik, bere koadroetarako detaile bila egoten da uneoro.

► Noiz eta nola hasi zinen margotzen?

Niri betidanik gustatu zait marraztea.

Ordu asko pasatzen nintuen marrazten. Arkatza eta koadernoarekin King-Kong taberna joaten nintzen askotan eta bertan marrazten nuen.

Emakume bat gerturatu zitzaidan behin eta nire marrazkiak oso onak zirela esan zidan. Margotzera joateko animatu ninduen. 1995. urtean Egur Arte tailerrera joaten hasi nintzen. Bertan ikasi nuen koloreak nahasten, distantziak neurtzen... gauza asko eduki behar dira kontuan koadro bat margotzeko. Orain etxean marrazten dut.

► Zer marraztea gustatzen zaizu?

Pertsonak. Hasieran bodegoiak egiten genituen Arte tailerrean, frutak eta paisaiak marrazten genituen, baina niri ez zitzaidan gustatzen, horrek ez dit ezer esaten. Pertsonen sentimenduak, espresioa gustatzen zait, koadro bakoitzean pertsonaien sentimenduak ateratzea gustatzen zait. Aurpegiko espresioa, begirada eta batez ere, eskuak ditut gustuko.

► Gustuko duzun margolari bat?

Botero asko gustatzen zait. Freskura eta alaitasuna eskaintzen dute bere koadroek, ikusi eta irribarre bat ateratzen di-

zuten horietakoak dira. Picasso ere asko gustatzen zait, zoro sinpatiko bat zen, sentimenduak oso ondo adierazten zituen. Garai batean Van Gogh ere gustatzen zitzaidan. Bestela, aldizkarietan ikusten ditudan marrazkiak hartu eta gustatzen zaidana margotzen dut.

«Sortzea oso polita da baina denbora asko behar da»

► Irudiak kopiatu ala sortu egiten dituzu?

Kopiatu egiten ditut, baina ez zehatz-mehatz. Beti saiatzen naiz nire ikutua ematen, eta gehienetan pertsonen espresioa aldatu egiten dut. Boteroren pertsonaiak serioagoak eta zatarragoak dira nireak baino. Nire aldartea islatzen da koadroetan. Azken koadroan, dantzan dagoen gizona, haserre ateratzen zitzaidan batzutan, eta nik ez nuen haserre nahi, orduan beste egun baterako lagatzen nuen. Sortzea oso polita da, baina denbora asko behar da.



Boteroren lanetan oinarrituta egin ditu Pepik hiru kuadro hauek. Lehena Musika Eskolan ikusi daiteke. Bigarrena, Urzelai dendan.

► Noiz margotzen duzu?

Astean zehar ez daukat margotzeko denborarik, asteburuak aprobetxatzen ditut, baina noski, lagunekin ateratzea ere gustatzen zait. Neguan askoz gehiago margotzen dut, iluntasunean. Alkandora jantzi eta asperu arte margotzen dut, orduak konturatu gabe pasatzen zaizkit. Egun batzutan ez zait ezer ateratzen, ez dut nik nahi dudana lortzen, orduan laga egiten dut. Urrunetik begiratzen diot koadroari, berriro hurbiltzen naiz, pertsonaiekin hitz egiten dut, eta nik nahi dudana espresioa lortu arte ez dut koadroa amaitutzat ematen. Buruan daukadan espresioa, sentimendua edo kolorea paperera eramatea ez da erraza. Azken koadroa egiten urtebete inguru eman dut, asteburuetan. Perfekzioa gustatzen zait.

► Zer da zuretzako pintura?

Pintura dena da niretzat, izugarri gustatzen zait margotzea. Kanean jendearen espresioan, mugitzeko moduan, aurpegi edota eskuetan fijaszen naiz. Detalle desberdinak aztertzen egoten naiz. Pertsonen begirada eta espresioekin jolastea gustatzen zait.

► Posible al da pinturatik bizitzea?

Oso zaila da. Gustatuko litzaidake, ez pentsa! Denbora izango banu, egun osoa margotzen pasatuko nuke. Nire estudio propioa irekitzea gustatuko litzaidake, jendeak nire koadroak ikusteko eta bertan la-

sai margotzeko. Jubilatzen naizenean denbora gehiago eskainiko diot. Hala ere, gustuko dudalako margotzen dut, obligazioz izango balitz, desberdina izango litzateke. Komertzioa eta dirua sartzen bada tartean gauzak aldatu egiten dira. Orain gozatu egiten dut. Ezingo nuke makina bihurtu, epeak errespetatu eta koadro mordoa egun jakin baterako entregatu. Presiopean ez da gozatzen.

«Denbora izango banu, egun osoa margotzen emango nuke»

► Zenbat koadro egin dituzu?

25 inguru. Batzuk enkarguz, lagunek edo senideek eskatuta eta gainontzekoak nik nahi dudalako. Gutxi batzuk saldu ere, egin ditut. Norbaitek bere etxerako koadro bat eskatzen badit, lehenengo etxea ikusi behar dut, koadroa zintzilikatuko den horma eta pertsona ezagutu behar dut, bere neurrirako koadro bat egiteko. Normalean lan handiak egiten ditut, koadro han-

diak gustatzen zaizkit. Lehenengoa egin nuena da nire kuttunena. Saltzeko aukera izan nuen, baina nire egongelan daukat.

► Zer da zailena?

Buruan daukazun kolorea lortzea. Nahasketa asko egin behar dira, eta askotan, lehortzen denean konturatzen zara ez zela zuk nahi zenuen kolorea. Lur koloreak erabiltzen ditut gehien; okreak, marroiak, horiak... Urdin eta berdeak ez zaizkit gehiegi gustatzen.

► Marratzen ikasi daiteke ala berezko zerbait eduki behar da?


Gauza asko ikasi daitezke, baina eskua eduki behar da. Umea nintzela, eskolan marrazki batzuk egin nituen eta irakasleak kalkatutakoak zirela esan zidan. Min handia eman zidan horrek, ez zidan sinistu nik egindakoak zirela. Gaur egun ez zen horrelakorik gertatuko, seguru animatu egingo nindutela margotzera, baina garai hartan... etxean ere ezin nuen esan margolaria izan nahi nuela! Egur Arte tailerrera joaten hasi nintzenean ere, amak bi egun iraungo nituela esan zidan. Aho zabalik gelditu zen nire lehenengo koadroa ikusi zuenean.

► Noizko Pepi Callejaren erakusketa?

Gustatuko litzaidake, baina koadro gehienak emanda dauzkat eta erakusketa egiteko jendea eskatu beharko nioke. Jendeak nire koadroak etxean edukitzea, eta egunero nire obrarekin disfrutatzen duela ikusteak satisfazio handia ematen dit.

ERAKUSKETA

Jose Ramon Elortzaren lanik berrienak ikusgai Kultura Etxean



Jose Ramon Elortza margolari elgoibartarrak bere azken margo lanak ikusgai ipiniko ditu Kultura Etxeko erakusketa gelan ekainaren 22tik uztailearen 8ra bitartean. Erakusketa zabalik egongo da astelehenetik zapatuta bitartean 19:00etatik 21:00etara.

Erakusketa honetan ikusi ahal izango ditugu Elortzaren lanik berrienak. 17 edo 18 koadro ekarriko ditu, tamaina ertainekoak. Pintura akrilikoz egindako margo lan hauetan irudi geometrikoek izango dute tarte nabarmena. Margolariak berak azaldu digunez, "argi eta itzalen arteko jokoak dira; mugimenduak, formak eta airea el-

kartzen dira nire lanik berrienetan. Oraindik lanean ari naiz Elgoibarren erakutsiko ditudan lanetako batzuekin".

Elortzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren beka irabazi zuen 1986an; 1993an Iruñeko Pintura Biurtekoan bere obra bat saritu zuten eta urte berean Eusko Jaurfari-tzaren Gure Artea saria jaso zuen.

Taldean zein bakarka makina bat erakusketa egin ditu, baina jaioterrian 1981. urtetik ez da bere lanak ikusteko aukerarik izan. "Urte asko pasa dira Elgoibarren erakusketarik egin ez dudala eta momentuaren bila hasita oraingoa iruditu zait egokia", esan digu Elortzak.

Udal Musika Bandaren kontzertua izango da domekan

Udal Musika Bandak kontzertua egingo du domekan, hilaren 17an, 12:30ean Herriko Antzokian. Amenabarren *Arraunlariak*; Azkueren *Vizcaytik Bizkaiara*; Santiagoren *Estampas vascas*; Sorozabalen *Fandango zaharra*; Urkizuren *Jaialdia*; eta Iparragirre-*ren Gemikako arbola* joko dituzte.

Kurtsu amaierako dantza jaialdia eguazten eta eguenean

Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako ikasleek (6 eta 15 urte artekoek) kurtsu bukaerako dantza jaialdia egingo dute hilaren 20an eta 21ean Herriko Antzokian; bi saioak 19:00etan izango dira. Euskal dantzetatik aerobikera arte denetariko dantzak ikusi ahal izango dira.

Korri eta Xalto pailazoak datorren barixakuan plazan

Kiribilka programaren baitan datorren barixakuan, hilaren 22an, Korri eta Xalto pailazoek *Artista bat naiz ni* ikuskizuna eskainiko dute 17:30ean Foruen plazan (euria bada, Herriko Antzokian).

Pailazoek arlo guztietan artistak direla erakutsiko dute saio motz eta dibertigarri zositako obraren bitartez. Musika kontzertu bitxia, pintura eta eskultura saioa, zinema... uztartuko dituzte publikoaren laguntzaz, abestiekin, dantzekin eta kantekin.

Kiribilka egitasmoko uda aurreko azken saioa ekainaren 29an izango da eta uda ostean, irailaren 14an, 21ean eta 28an eta urriaren 5ean izango dira. Saioetako bate-tan kultur ikuskizuna izango da.



I. URTEURRENA

2006ko maiatzaren 15ean hil zen

Pilar Etxabe Txurruka Benito Saez Medranoren alargunaren oroimenez urteurreneko meza izango da, igandean, hilak 17, eguerdiko 12:00etan Parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik..



ZARAUZKO TRIATLOIA

25. postuan sailkatu zen Ibon Gabilondo Zarauzko Triatloian



Hiru elgoibartar izan ziren pasa den zapatuan Zarauzko Triatloian; Urgazi Taldeko Ibon Gabilondo, Jesus Mari Agirretxe eta Iñaki Konde. Horien artean, Ibon Gabilondok bereziki prestatu du proba hau eta emaitza bikaina izan da: 25. postuan sailkatu da elgoibartarra eta oso denbora onarekin gainera (04:30:24). Ibon Gabilondo triatleta onenekin aritu zen lehian eta iazko marka hobetzea lortu du gainera (04:52:36). Jesus

Mari Agirretxe ere oso ondo aritu zen eta 170. postuan amaitu zuen proba 05:01:09 denborarekin. Azkenik, Iñaki Konde 305. postuan sartu zen 05:38:56 denborarekin. Eguraldi sargoria izan zuten lehen sektorean korrikalariak eta euria gogotik bota zuen ondoren, lehen lasterkariak Aiako malda pikoetan zirela. Guztira 317 mutilek eta 19 neskek amaitu zuten proba, eta irabazlea Eneko Llanos izan zen.

Galtxak Haundi entrenatzeari lagako dio

Bukatu da futbol denboraldia C.D. Elgoibarentzat eta jakin dugunez, Galtxak ez du jarraituko entrenatzaile modura. Bere lana eta familiari denbora gehiago eskaintzeko asmoz lagako du futbola.

Bestalde, joan zen zapatuan egin zuten klubeko maila guztietako taldeek denboraldi amaierako afaria Harzubi jaetxean. Bertan, denboraldiko jokalariei aipagarrienak saritu zituzten: Idarraga Kafeak eskaintzen duen jokalariei erregularrenaren saria Txus Nabarretrek jaso zuen. Iker Martinezek bestalde, gogotik onenaren saria jaso zuen.

Batzar Orokorra

C.D. Elgoibarko zuzendaritzak jakinarazi duenez, ekainaren 29an egingo da



urteko batzar orokorra. Kultur Etxeko hitzaldi gela izango da, arratsaldeko 19:00etan lehenengo deialdia eta 19:30ean bigarrena.

Teknikazio ikastaroa

Sanlo Eskubaloi Taldeak teknikazio ikastaroa antolatu du, ekainaren 25etik uztailaren 6ra. 1995, 1996 eta 1997an jaio eta eskubalian jotzeko interesa duten neska-mutillak Olaizaga kiroldegira joan daitezke ekainaren 13an eta 14an, arratsaldeko 19.30etik 20.00etara (Iñaki Gil). Ikastaroak 10 euro balio ditu.

Txirindulari jantziak

Txarriidunak babestutako txirindularitza jantziek izan duten arrakasta ikusita, salgai jarriko dira. Jantzi hauek ikusi eta probatzeko interesatuek kiroldegira joan daitezke asteazkenean, hilak 20, 19:00etan eta Josugatik galdetu.

60 umek jaso zuten domina Finalista Egunean

Morkaiko Mendizale Elkartearen eskutik, Finalista Eguna izan zen pasa den domekan. Guraso eta haurrak Plaza Handitik abiatu ziren San Pedrora. Sigmatik ekin zioten ibilbideari, Moru mendiaren magaletik. Aurreko egunetan eginiko euriaren ondorioz, lokatz morderoa aurkitu zuten bidean. San Pedrora iritsi eta 12:30ean hasi zen domina banaketa. 2006an eginiko mendi kopurua kontuan hartuta eman ziren dominak. 10, 15, 20 gailur eta mendi ibilbideetan 20.000, 30.000 eta 40.000 metro egin zituzten neska-mutilek jaso zuten saria. Guztira 60 domina banatu ziren.



[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ Etxea salgai erdialdean. 3 logela, egongela, bainugela, sukaldea, jangela. 120m². Gas naturala, 60m²ko ganbara. ☎ **943741769**

▶ Etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa. Eguzkitsua. ☎ **616213332**

▶ Etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna. Igogailua, ganbara. Berritua. Garajea aukeran. Prezio interesgarria.

☎ **686208143**

▶ Atiko berritua salgai erdialdean. Igogailua, berogailua, komuna, sukalde modernoa, jangela-egongela handia, 2 logela. bizitzera sartzeko. ☎ **656780459**

▶ Etxea salgai Soroluzen. 2 logela, sukaldea eta bainua. 80.000 euro. ☎ **943772118**

▶ Etxe eguzkitsua salgai. 3 logela, egongela, jangela, sukaldea, komuna. Berritua, altzariekin. Bi igogailu eta ganbara.

☎ **680707639**

▶ Pisu oso polita salgai Altzolan.

☎ **650243359**

▶ Etxea salgai San Roken. Berria bezalako. Prezio negoziagarria. Egongela, 3 logela, 2 komun, sukaldea eta despentsa. Garajea eta ganbara. ☎ **646405567**

ALOKAIRUA

▶ Gasteizen pisua hartuko genuke lau ikaslek.

☎ **685764281**

▶ Logela alokatzen dut.

☎ **943741881/635206436**

▶ 2 edo 3 logelatako etxea hartuko nuke. ☎ **649010179**

▶ Logela hartuko nuke alokairuan.

☎ **679873132**

▶ Pisu konpartituko nuke.

☎ **687323613 (Asif)**

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Garaje itxia alokatzen da Santa Klaran. Plazatik gertu.

☎ **669022573**

▶ Marradun garajea alokairuan herri erdi-erdian, Santa Ana 2an.

☎ **943743427**

[AUTOAK]

▶ Peugeot 107 ia berria salgai. 75 zaldi, abiadura aldagailu sekuentziala, gasolina, urtebeteko garrantia. ☎ **620143033**

▶ Renault 21 GTS autoa salgai. 90 zaldi. Egoera onean, margotu berria. Gris metalizatua.

☎ **6996008536**

▶ 2. eskuko kotxe automatikoa erositako nuke. ☎ **639390808**

[BESTELAKOAK]

▶ Karreretako 2 bizikleta salgai. Zeus eta Allan aluminiozko koadroak. 52 neurrikoak. ☎ **943743959 (Javier)**

▶ Untxartak salgai. 2 hilabetekoak. ☎ **658740788**

▶ Logela salgai, egoera onean. Armairu handia, 1,35eko ohea, komoda, 2 mesanotxe.

☎ **669916148/943531648**

▶ 4 llanta, AMG II, Mercedes replika 18 pulgada, neumatikoak Pzero Rosso 245/40 18. Oso egoera onean. 1.200 euro.

☎ **628526697**

▶ 2. eskuko izozkailua salgai. Bertikala da, hozkailua modukoa. ☎ **639390808**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Emakume euskalduna alzheimerre duten gaixoak zaintzeko prest.

☎ **943742330/660511781**

• 2. mailako ofiziala lanerako prest. Eraikuntzan, garbiketari, kamarero... ☎ **661225149**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketari egiteko prest. ☎ **639520378**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ **671476869**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketari egiteko prest. Papelekin.

☎ **649010179**

• Gizezkoa eraikuntzan edo pinturan lan egiteko prest.

☎ **677617031**

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. ☎ **943741977**

• 19 urteko neska umeak zaintzeko prest. ☎ **943741977**

• Emakumea gaixoak zaintzeko prest, egunez edo gauzez.

☎ **943172896 (Mertxe)**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketari egiteko prest. ☎ **638221948**

• LHko klase partikularak eskainiko nituzke uztailean, goizez.

☎ **676753957**

• LH eta DBHko klase partikularak eskainiko nituzke udan.

☎ **943531054**

• Mutila umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **676500959**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketari egiteko prest. ☎ **699813826**

• Mutila lanerako prest: txofer, sukaldari laguntzaile, kamarero... ☎ **669768779**

• Neska orduka nagusiak edo umeak zaintzeko prest.

☎ **638221948**

• Emakumea goizez lan egiteko prest. tabernan, sukaldari, garbitzaile, zaintzaile...

☎ **654604798**

• Emakumea tabernan lan egiteko prest, sukaldari, garbitzaile... ☎ **690701118**

• Neska gauzez lan egiteko prest. ☎ **638221948**

• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu, edo garbiketari lanerako prest. ☎ **667397100**

• Emakumea lanerako prest. Kamarera (esperientzia) edo garbitzaile moduan.

☎ **666032715**

ESKAINITZA

• Egun erdirako banatzailea behar da. Ilbilgailua ez da beharrezkoa. ☎ **627597222**

• Lorazainak behar dira Elgoibarren. ☎ **943761656**

• Jantokirako kamareroa behar da. Igandetan jai.

☎ **943740580**

• Jantzi denda baterako saltzaile euskalduna behar da. Esperientzia eta oinarizko informatika ezagutza. ☎ **943741129**

• Asteburu eta jai-egunetan gasolindegian lan egiteko pertsona behar da. ☎ **943740241**

• Fisioterapeuta behar da. 8 ordu, lan lasaia, irabazi onak. Kurrikulum-a bidali: Fisiolantalea, Aranatar Sabin 3, behea. 48.700 Ondoara.

• Neska edo mutil euskalduna behar da tabernarako. Asteegunetan eta asteburuan txandaka.

☎ **943742897**

• Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko.

☎ **685750083 (19:00etatik aurrera)**

• Mendaroko kafetegirako sukaldaria behar da.

☎ **943030150**

• Gabi jatetxerako kamareroa behar da. ☎ **943741230**

• Dendarako langilea behar da. 30-45 urtekoa. Esperientzia ehunki dendetan.

☎ **943744457**

• Jatetxerako garbitzailea behar da. ☎ **943127334**

• Bitxiak, barruko erropak eta edergintzako produktuak saltzeko pertsonak behar dira. Ez da esperientziarik behar. Irabazi onak. ☎ **607824892**

• Jatetxerako kamareroa behar da. ☎ **943121262**

• Sukaldaria behar da.

☎ **943743196**

• Kamareroa behar da.

☎ **943743196**

• Tabernarako kamarero euskalduna behar da.

☎ **670654921**

• Kamareroa behar da egunero lan egiteko. Kontratuarekin. Esperientzia. ☎ **617250429**

• Dendarako langilea behar da, goiz eta arratsaldean, eta larunbatetan. Adorea, gida baimena eta euskara beharrezkoak. Bidali erreferentziak **195 posta kutxatilara**.

ABISUAK

• Urte eta erdiko setter ingelesa oparitzen dut. ☎ **639313329**

• Urtebeteko setter ingeles arra oparitzen dut, polita. Pertsona arduratsu bati emango nioke.

☎ **685766957**

• Urrezko eraztuna topatu dut. Judith jartzen du. Umearena dirudi.

☎ **639971977**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Maialen** domekan 4 urte egin zenituelako. Etxeko guztien partetik.



▶ Zorionak **Miren** zure 10. urtebetetzean. Familiako guztien partetik.



▶ Zorionak **Garazi** ekainaren 5ean 3 urte bete zituelako. Familiako partez.



▶ Zorionak Guretzako onena zara! Yeray eta Yaizaren partetik.



▶ Ongi-etorri maitia!



▶ Zorionak **guapisima** zure 11. urtebetetzean. Ikastolako lagunen partetik, muxu asko.



▶ Zorionak **Oihane** Zelan 5 urterekin? Bizikleta polita, eh? Familiako eta bereziki, Mikelen partetik. Ondo pasa eguna.



▶ Zorionak **Eneko** gaur 7 urte egin dituzulako. Familiako eta bereziki, Iraitzen partetik.



▶ Haunditzen haunditzen... bi numeroko zenbakixa osatu dozu, igartzen da eh? Zorionak **guapil**



▶ Zorionak etxeko **printze-sari** astelehenean 11 urte egin zituelako. Muxu handi bat etxeko partetik.




▶ Galduta zeunden baina aurkitu zaitugu! Animo txapeladun! Guretzako onena zara. Zorionak!



▶ Zorionak **Elena** 13 urte egin dituzulako. Etxeko partez. Pitxubi, koadrilako eta "Pilin" partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Haritz** hilaren 17an 12 urte egingo dituzulako. Familiako eta bereziki, Eñauten partetik.



▶ Zorionak **Ainhoa** hilaren 13an 8 urte egin zenituelako. Elgoibarko familiako, bereziki, Jone eta Nahia.



▶ Zorionak **Mikel** ekainaren 20an 4 urte egingo dituzulako. Guraso eta anaia Alainen partetik.



▶ Zorionak **Ibare** atzo 12 urte egin zenituelako. Gurasoen eta izeba-osaben partetik.



▶ Zorionak **Eneko** zure 2. urtebetetzean. Amama, izeba, Rene, Tamara eta Aidaren partetik.



SORALUCE KOOP. E.ak MUNTATZAILE MEKANIKOAK BEHAR DITU

Mekanika arloko formazioa (LH II edo Ziklo Formatzaile Teknikoak) Esperientzia izatea kontuan izango da. Lanean berehala hasteko aukera.

Bidali C.V GG.BB.etako departamentura.
Helbidea: Osintxu Auzoa z/g. 20570 - BERGARA
E-mail: soraluce@soraluce.com



LAN POLTSA

Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuak administrari lanetarako pertsona bat behar du:

ESKATZEN DENA:

- Heziketa Zikloko titulua (gutxienez)
- Euskara menderatzea
- Jendaurrean lanean aritzeko gaitasuna
- Esperientzia baloratuko da

Interesa dutenek bidali dezatela CVa ekainaren 22a baino lehen: postaz IMH, Azkue Auzoa 1 - 20870 Elgoibar, edo epostaz imh@imh.es .
Erreferentzia: OROIRA003



[OKINDEGIA]



17 igandea IBARRENEA



[FARMAZIAK]

GUARDIA 24 ORDUZ
15 Zabaleta
16 Etxeberria (*Errosario*)
17 Etxeberria (*Errosario*)
18 Fernandez
19 Bidasolo
20 Etxeberria (*Santa Ana*)
21 Fernandez
22 Yudego

* *Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

Elgoibarko Izarra Elkartearen 4 HILABETEKO AMATASUN-BAJA betetzeko

ADMINISTRARIA BEHAR DA

Eskatzen da:

- Kontabilitatea.
- Nominak eta zergak (BEZ, PFEZ, Gizarte Segurantzza).
- Internet eta informatika (konta-plus, excel, acces, ...)
- Elgoibarren edo inguruan bizitzea baloratuko da.

Eskaintzen da:

- 30 orduko lan-astea.

Curriculumak entregatzeko azken eguna: Ekainak 25 (astelehena).

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartearen - Ubitarte 4, behea - 20870 ELGOIBAR

Tel.: 943 74 16 26 (Amaia) - E-posta: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak
elkarlanean kudeatu nahi duten aisialdi proiekturako

AISIALDIKO ZUZENDARIA BEHAR DA

Eskatzen da:

- Aisialdiko zuzendari titulua.
- Antolakuntzarako eta gestiorako gaitasuna.
- Aisialdi proiektuei eragiteko inizatiba.

Baloratuko da:

- Esperientzia antzerako lanetan.
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea.

Eskaintzen da: Urtebeterako lan kontratua (luzatzeko aukerarekin).

Curriculumak entregatzeko azken eguna: Ekainak 25 (astelehena).

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartearen - Ubitarte 4, behea - 20870 ELGOIBAR

Tel.: 943 74 16 26 (Imanol) - E-posta: imanol@elgoibarkoizarra.com

[15 BARIXAKUA]

17:30 BETIKO JOLASAK
Plaza Handian
Kiribilka egitasmoaren baitan
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

[16 ZAPATUA]

10:00 HAURENTZAKO HERRI KIROLAK
5-10 urte bitartekoentzat
Plaza Handian (euria izanez gero, Kiroldegian)

11:30 IMHKO HEZIKETA
INGENIARITZAKO ATE IREKIAK
IMHko Karakate gelan

17:30 URRUZUNO AUZOKO JAIK
Meza ostean luntxa eta umeentzako jolasak egongo dira
Iluntzean afaria lokal sozialean
Ekaitz eta Arantza trikitilariekin

22:00 KURTZO BUKAERAKO DANTZA JAIALDIA
Triska dantza Taldea
Olaizaga Kiroldegian

[17 DOMEKIA]

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian
Egitaraua: "Arraunlariak" (M. Amenabar), "Vizcaytik-Bizkaira" (R. M. de Azcue); "Estampas Vascas" (R.A. de Santiago); "Fandango Zarra" (P. Sorozabal); "Jaialdia" (I. Urkizu); "Gemikako Arbola" (Iparragirre).

Zuzendaria: Jose Antonio Osoro
Euskal jaien mendeurren ospakizunen baitan

12:00 SANMIGELDARREN EGUNA

Auzoan hildakoen aldeko meza eta ondoren salda eta txorizoa.
Ondoren, auzoko pilotarien arteko pilota partidak
Partiduen ostean bazkaria eta dantzaldia Gardokirekin

[20 EGUAZTENA]

19:00 I. BEREZIARTUA MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO KURTZO BUKAERAKO DANTZA JAIALDIA
Herriko Antzokian

[21 EGUENA]

19:00 I. BEREZIARTUA MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO KURTZO BUKAERAKO DANTZA JAIALDIA
Herriko Antzokian

[22 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA EGITASMOA
Artista bat naiz ni
Korri eta Xalto pailazoak
Plaza Handian (euria bada, Herriko Antzokian)

19:00 MARGO ERAKUSKETA
Jose Ramon Elorzaren margolanak
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Ekainaren 22tik uztailaren 8ra
Ordutegia: 19:00etatik 21:00etara

22:00 BIDEO FORUM-A
Filmea: "La joven de las especias"
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan
Hizlaria: Eskarne Larrinaga
Antolatzailea: Haizea Emakume T.

23:00 DANTZALDIA DJ

GORKAREKIN
Altzolako San Juan Jaien baitan
Altzolan

18:00 AZKARRENA FESTA IMH-N
Merienda, sari banaketa eta Kiké eritmo afrikarren ikuskizuna
19.30etan, Elgoibarko Guass dantzalekuan usika taldeak: *Darling Shoes"; "Garrapata" eta "Kiké"

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Piratas del caribe III»

15, barixakua: 22:15

16, zapatua: 18:30-22:15

17, domekia: 18:30-22:15

18, astelehena: 21:30

«La maldicion de la flor dorada»

22, barixakua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Oceans 13»

15, barixakua: 19:30

16, zapatua: 17:00-19:30

17, domekia: 17:00-19:30

18, astelehena: 19:30

19, martitena: 19:30

20, eguaztena: 19:30

EIBAR, UNZAGA

«Tu la letra y yo la musica»

15, barixakua: 22:15

16, zapatua: 22:15

17, domekia: 22:15

18, astelehena: 22:15

19, martitena: 22:15

20, eguaztena: 22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

SINOPSISIAK

«Piratas del Caribe III»

Zuzendaria: Gore Verbinski.

Antzezleak: Johnny Depp, Orlando Bloom, Will Turner eta Elizabeth Swann Barbosa kapitainarekin batu dira preso dagoen Jack Sparrow kapitaina askatzeko. Davy Jones maltzuraren barkuko sotoan dago giltzapetuta Sparrow, inoiz egon den piratarik onena eta baita txarrena ere. Bien bitartean Holandar Alderria itsasontzi fantasmak izua zabaltzen jarraitzen du zazpi itsasoetan barrena. Hirukoteak Singapurerrantz nabigatu beharko du eta bertako uretan Sao Feng pirata zuhurrari aurre egin.

Atzera hegira



1969. urteko erretratu zahar hau **Juanito Gorostizak** laga digu. Baltasar Pilotazale Elkartean ateratako argazkia da hau, seguruenik lagunarteko ospakizunen batean. Erretratuan agertzen diren gizon hauek, oso lagun onak ziren eta sarritan elkartzen ziren bazkari edo aforiak egiteko. Oso ezagunak ziren herrian eta ez hemen bakarrik, Euskal Herri osoan ziren ospetsuak. Gizon hauek guztiak hilda daude. Gogora ditzagun zein diren gaurko protagonistak. Zutik, ezkerretik eskumara: **German Uriguen "Etxegiña"** (bertsolaria) eta **Casimiro Zabala** (pilotari profesionala).

Eserita, ezkerretik eskumara: **Silvino Gabilondo** (Alaves eta C.D. Elgoibarko jokalaria), **Demetrio Vallejo** (C.D. Elgoibar eta Donostiako Esperanza F.C. taldeko jokalaria), **Dionisio Estarta** (pilotari afizionatua) eta **Gerardo Arriola** (pilotari profesionala).



ESKERTZA

2007ko ekainaren 7an hil zen
Luis Bilbao Galarragaren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Luis Bilbao Galarraga

*"Pozik jardun naban Elgoibarko Izarrako lehendakari lanetan;
herrittaren artian euskal sentimendua indartzia lortu genduan"*

Eskerrik asko, Luis.

Elgoibarkoi Izarra Kultur Elkartea





uda heldu da
heldu euskarari
heldu *aek*-ra

EGA

iraileko azterketari begira

Eskolak

uztailean eta **irailean**

Ikasleek eta langabetuek

matrikula erdia

Udalaren laguntzaz

Perfecciona tu verano en

aek

Plaza Txikia, 3 • Tel.: 943 74 13 32
elgoibar@aeknet.net

Euskaltegia

Matrikulatzeko epea ekainaren 29 arte



RENAULT
oca*si*ón

Mégane Sedan Confort Dynamique 1.5 dCi 100zp	2005	15.600 €
Grand Scénic Confort Dynamique 1.9 dCi 120zp	2005	18.500 €
Espace Expression 1.9 dCi 120zp	2006	22.860 €
Kangoo Combi ICE 1.5 dCi 65zp	2006	12.500 €

Scénic
Confort Expression
1.5 dCi 100zp
14.600 €*

2005ean matrikulatua



*Sendearentzako Salmenta Prezioan sartuta daude transferentzia-gastuak. Eskaintzak izanik agortu arte baliu du. Irutien den modeloa: Scenic Dynamique.



**Eraman
DVD bat**

ibilgailu bat
erosita*

*Eskaintza honen aukerako edozein ibilgailu erosi gero baliu du. 07/06/30 baino lehen erjindako eskaintzei baliu du.

compromiso **RENAULT** Garantía **oca*si*ón** hasta 24 meses

AUTOBERRI ARRASATE - AZPEITIA - ELGOIBAR - IRUIN - TOLOSA
Eta bere Agentzia Sarea BERGARA - LAZKAO - DIARTZUN - ZARAUTZ



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit

Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Ezenarro arotzerixia

Era guztietako arotz lanak
☎ 653 707 837

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloa - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibamar

Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Javi

Erretxindi, 1 behea
☎ 659 772 932

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilloa
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrotza

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 · MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Zaldua

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Aramar

Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Peio

Herriko Enparantza, 5 behea
MENDARO
☎ 943 03 35 35/660 791 723

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloa
☎ 943 74 30 94



Indusketa lanak

Lekunberri indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com